



Fundación "la Caixa"



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

© Cristina García Rodero

CRISTINA GARCÍA RODERO  
**AMETSEN LURRALDEA**



| ARTEA KALEAN |

**Urriaren 13tik  
azaroaren 4ra**

Hauen lankidetzarekin  
antolatutako erakusketa:



**Vicente Ferrer**

*Transforma la sociedad en humanidad*



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

**Caixa Forum**

**Prensa-txostena**

**Alderdieder. Donostia**


**2020ko urriaren 13tik azaroaren 4ra arte**



## “la Caixa” Fundazioak eta Donostiako Udalak Cristina García Roderoren *Ametsen lurraldea* aurkeztu dute

- “la Caixa” Fundazioak eta Donostiako Udalak antolatutako erakusketa 40 argazkiz osatutakoa da.
- Erakusketak Anantapurko biztanleen eguneroko bizitza jasotzen du Andhra Pradesh Estatuan, hau da, Indiako lekurik behartsuenetakoan; bertan bizi dira herrialdeko komunitate baztertuenak eta zahurgarrienak.
- Erakusketa *Artea kalean* ekimenaren barnean dago. Horren bidez, “la Caixa” Fundazioak artea jendearengana hurbildu nahi du, betiere museo, erakusketa areto eta ohiko esparruetatik kanpo.
- Argazkilari ospetsuak emakumeei ahotsa eman die eta haien munduan murgildu da. Mundu horretan uztartzen dira emakumeen bizitzaren argi-itzalak kolorez eta lirintasunaz estaltzen dituzten pertsonen alaitasuna eta sufrimenduarekin.

***Ametsen lurraldea. Cristina García Rodero.*** Lekua: Alderdieder, Donostia. **Data:** 2020ko urriaren 13tik azaroaren 4ra. **Antolaketa eta ekoizpena:** erakusketaren antolatzailea “la Caixa” Fundazioa da, Donostiako Udalak lagundurik. **Argazkiak eta komisariotza:** Cristina García Rodero. **Aholkularia:** Josep Giralt

 **#TierradeSueñosCaixaForum**  
**@FundlaCaixa @CaixaForum**



**Donostia, 2020ko urriaren 13a.** Eneko Goia Donostiako alkateak, Juan Pedro Badiola Caixabankeko Iparraldeko Lurralde zuzendariak, Sonia Saenz "La Caixa" Fundazioaren Euskal Herriko eta Kantabriako ordezkariak eta Cristina García Rodero argazkilaria eta erakusketaren komisarioak, gaur zabalduko dute *Ametsen lurraldea*. *Cristina García Rodero* erakusketa. Anantapurko biztanleen eguneroko bizitza erakusten du Andhra Pradesh Estatuan, hau da, Indiako lekurik behartsuenetakoan; bertan bizi dira herrialdeko komunitate baztertuenak eta zahurgarrienak.



Tejasre eta Pameela, 12 eta 10 urtekoak, antzezlanean, Emakumearen Eguneko manifestazioak bukatu ondoren, martxoaren 8an. Antzerkia tresna hezigarri oso ahaltsua da: antzezlan horrek, zehazki, herritarrak kontzientziatu nahi ditu genero-arrazoiengatik egiten diren abortu selektiboen arazoaz.  
© Cristina García Rodero

"la Caixa" Fundazioa lanean ari da, besteak beste, gizartea kulturara eta jakintzara hurbiltzeko xedez. Zabalkundea oinarrizko tresna da pertsonen garapena sustatzeko eta, horregatik, entitateak lanean dihardu ezagutza adin eta prestakuntza-maila guztietako jendearengana hurbiltzeko. Kultur jardueren artean, "la Caixa" Fundazioak erakusketa ibiltariak antolatzen ditu CaixaForumik ez duten hiri eta udalerrietan, herritarrak sentzibilizatzen laguntzeko arte, zientzia eta gizarte arloko edukien bitartez.

Gainera, *Artea kalean* programaren bidez, "la Caixa" Fundazioak zerupeko museo bihurtu nahi du eremu publikoa, nazioartean ospetsuak diren artisten lanak erakutsiz. 2006an jarri zen abian *Artea kalean* programa, eta harrezkerotik, herritarrengana hurbildu ditu modernotasunaren ikur diren artista ospetsu

batzuen sormen lanak, hala nola Auguste Rodin edo Henry Moorerenak, bai eta artista garaikideenak ere, hala nola Manolo Valdés eta Igor Mitoraj-enak, eta hurbilagokoenak, Sebastião Salgado argazkilaria brasildarrarenak.

Orain, "la Caixa" Fundazioak, Donostiako Udalarekin elkarlanean, *Ametsen lurraldea* erakusketa aurkeztu nahi du. Erakusketa hau "la Caixa" Fundazioak eta Vicente Ferrer Fundazioak elkarlanean Indiako pertsona zahurgarrienen bizi baldintzak nabarmen hobetze aldera egindako lanaren emaitza izan da.

Cristina García Roderori gonbidapena egin zitzaion Anantapurko komunitateen bizi baldintzak jasotzeko. Horrela, hilabete eta erdian, García Rodero hainbat tokitan ibili zen argiazkiak eginez: ospitaleetan, genero indarkeria pairatu duten





emakumeentzako harrera zentroetan nahiz tailer, ikastetxe eta etxeetan. Argazkien bidez, ahotsa eman die maiz ahazturik dauden pertsoneri: hau da, hurrei, desgaitasuna dutenei, eta bereziki, emakumeei. Izan ere, amak, nekazariak, jostunak, hainbat sinesmenetako emaztegaiak, irakasleak, erizainak eta ikasleak egitasmoaren partaide garrantzitsuak dira, Anantapurko komunitateak eraldatzeko eragile nagusietakoak baitira.

Erakusketa emakumeen mundu sentikor eta liluragarrienean barneratu da, bai eta Anantapurko emakumeen indarrean eta gauzak hobetzeko duten gaitasunean ere. Argazkilaria erabateko begirunez hurbildu zaie. Temati eta neurrigabea, Cristina García Roderok ederki jakin du mundu horretan murgiltzen; hain zuzen ere, mundu horretan uztartzen dira emakumeen bizitzaren argi-itzalak kolorez eta liraintasunaz estaltzen dituzten pertsonen alaitasuna eta sufrimenduarekin.



Neskato bat jostetan arkume batekin Bukaraya Samudram-en, Teru izeneko jaian. © Cristina García Rodero

Egitasmoaren emaitza 40 argazki izan dira, hots, Indiako landa-eremuko komunitateen irudi sorta liluragarri bat. Irudien konposizioaren kalitateak eta bizitasunak ikuslea liluratuko dute. García Rodero argazkilaria eskutik, Indiako jendearen begirada aurkituko dugu, denboran geldirik dirudien paisaian barrena.

Bere lanaren bidez, García Roderok India ikusteko modu berezi bat proposatzen digu, mundu konplexu eta zatikatua. Argazki bakoitzak kode bisual koherente bat eraikitzen du eta, oroz gain, trazedentea. Arte bihurtzen den irudia.

### **Cristina García Rodero, begiratzeko paradigmaraz iraultza ekarri duena**

Cristina García Rodero argazki unibertsalaren figura ospetsua da, hala haren nortasunagatik, nola haren lanek Espainian eta nazioartean duten oihartzunagatik. Puertollanon (Ciudad Real) 1949an jaioa, Arte Ederretan lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Magnum fotokazetaritza agentzia famatuan sartutako lehenbiziko emakume espainiarra izan zen. Bere



---

**Prentsa oharra**

lanen artean nabarmentzekoa da *España oculta*, "la Caixa"-ren Arte Garaikideko Bildumaren parte dena.

Sari ugari jaso ditu besteak beste, World Press Photo 1993, Espainiako Argazki Saria 1996, FotoPres "la Caixa" 1997, PhotoEspaña 2000, Argazki-kazetaritzako Godó Saria 2000, Arte Ederretako Merezimenduarentzako Urrezko Domina 2005, Gaztela-Mantxako Urrezko Domina 2016, eta, berriki, PhotoEspaña 2017. Museo propioa duen lehen emakumezko argazkilari espainiarra da; bere jaioterrian, hain zuzen.

| ARTEA KALEAN |

# AMETSEN LURRALDEA

## CRISTINA GARCÍA RODERO

2020ko urriaren 13tik azaroaren 4ra arte

**Alderdieder**  
**Donostia**

**Irekiera:** urriaren 13an, 11:30etik aurrera

**"la Caixa" Fundazioaren Informazio Zerbitzua**

Tel. 900 223 040

Astelehenetik igandera, 9:00etatik 20:00etara

<https://fundacionlacaixa.org/>

**"la Caixa" Fundazioaren Komunikazio Saila**

Victoria Lobato: 629 732 351/ [vlcomunicacion@vlcomunicacion.com](mailto:vlcomunicacion@vlcomunicacion.com)

Prensa-aretoa: <http://prensa.lacaixa.es/obrasocial>